

Alternatiba feministak, Kurdistanetik Portugalera martxan

“Martxan jarraituko dugu guztiak aske izan arte”. Horra hor Emakumeen Mundu Martxaren helburua; emakumeak askatzea. Martxoaren 8an abiatu zen Kurdistanetik eta urriaren 4an iritsiko da Portugalera; tartean, Euskal Herritik igaroko da.

| MALEN ALDALUR AZPILLAGA |

EZ DA ERRAZA mundua norabide berean martxan jartzea, baina 1995etik hona, bost urtean behin lortzen du Emakumeen Mundu Martxak. Quebec-en (Kanada) egin zuten lehen karabana *Ogiaren eta Larrosaren martxa* izenpean; 15.000 lagunek hartu zuten parte. Ez du euri gutxi egin garai hartatik. Aitzitik, Emakumeen Mundu Martxa bezala ezagutzen duguna 2000. urtean egin zen estreina-koz, demokrazia, itxaropena, berdintasuna eta bakea aldarrikatzeko.

Vania Martins eta Ximena Mriel Portugalgo eta Galiziako koordinatzaileak dira, eta haien ustez norbere borrokak nazioarteko bihurtzea da Martxa: “Niretzat biolentziaren eta kapitalismoaren aurkako borrokan gainerako emakumeekin bat egitea errebeldia konpartitua da”, dio Martinsek.

Mugimenduaren dimentsioa

163 herrialdetan banatutako 5.000 taldek baino gehiagok hartuko dute parte. Emakume anitzak, borroka berak batuta. Bost urtean behin irteten dira errepidera, herrialdez herrialde alternatiba feministak eraikitzeko.

Mundu Martxaren aitzakiarean hainbat ekintza antolatzen dira mundu osoan. Portugalen, esaterako, proiektuaren aurkezpenak eta eztabaida foroak egin dituzte eta oso harrera ona izan dute. Bertako koordinatzailearen hitzetan, emakume askok hartu dute parte Martxaren bukaerako ekitaldia antolatzen: “Oporton, esaterako –bi egun egingo ditu Martxak bertan–, emakume talde bat

jaialdi feminista antolatzen ari da karabanari ongietorria egiteko. Coimbra-n antzera gertatzen da, gogoz betetako emakume taldea ari da dena antolatzen, eta Lisboan –azken ekitaldia egingo den lekuan– emakume ugari mobilizatu dira Martxak bertan iraungo dituen hiru egunak antolatzen”.

“Feminismoarekin, eguneroko lanarekin eta alternatibak eraikiz frogatu dugu posible dela bestelako mundu bat sortzea; dagoeneko martxan hasi gara”, dio Mrielek. Haren hitzetan, konturatzaren zarenan biolentziaren eta kapitalismoaren aurkako borroka bera dela Maputxeen herrian, Palestinan, Filipinetan, Kanadan, Euskal Herrian eta Kuban, eta ohartzaren zarenan batasunak “potentzia iraultzaile ikaragarria” eskaintzen duela, ezin diozu horren alde lan egiteari utzi.

“Horrela egiten dugu munduko txoko guztietako milaka emakumek bost urtetik behin; gure ahotsak batu ditugu nazioarteko ekintza batean, eta aurten ere halaxe egingo dugu”.

Alternatiba feminista

Joana Aurrekoetxea Euskal Herriko Bilgune Feministako kidea da, eta Kurdistanen izan zen Martxaren hasieran: “Mundu hau eraldatzeko grinak batzen gaitu, finean. Justizia soziala da gure aldarrikapenen muina, eta ikusten dugu afera horretan emakumeok eta orokorrean subjektu feministak gako nagusi garena”. Dena den, uste du berezitasunak ere badituztela euren artean Martxan parte hartzen duten emakumeek, “bereizten gaituzte

“Biolentziaren eta kapitalismoaren aurkako borrokan gainerako emakumeekin bat egitea errebeldia konpartitua da”

Vania Martins, Portugalgo koordinatzailea



@ HUMANITE_FR

2010eko da argazia, hirugarren Mundu Martxan Parisen ateratakoa. Hala dio pankartak: “Geldi bortxak, desberdintasunak. Munduko emakumeak autonomiaren, bakearen eta duintasunaren alde gabiltza”.

sinesmenek, historiek, izenek, ohiturek eta abar luze batek. Horrek bereizten eta aldi berean aberasten gaitu, nahiz eta aitortu behar dugun horrek batzuetan konplexuagoa egiten duela elkarlana. Halere, edozein adostasun, edozein aurrerapauso lorpen handi bezala bizi dugu”.

Martinsek azaldu du asko direla Martxaren aldarrikapenak, “tokian tokiko errealitateak ere aintzat hartu behar dira”. Dena den, portugaldarraren iritziz lau aldarrikapen nagusi daude, hainbat lanildori lotuak: guztien ongizatea eta zerbitzu publikoak; elikadura burujabetza; ekoizpen eta laborantza jasagarria; emakumeen eskubidea jana, edana, lurra, etxebizitza, jakintza eta hezkuntza izateko, osasuna edo energia zerbitzu publikoak izateko eskubidea; bakea eta desmilitarizazioa; burujabetza ekonomiko; eta emakumeen aurkako biolentzia.

“Sinesmenek, historiek, izenek, ohiturek eta abar luze batek bereizten gaituzte. Aldi berean aberasten gaitu, nahiz eta aitortu behar dugun horrek batzuetan konplexuagoa egiten duela elkarlana”

Joana Aurrekoetxea,
Bilgune Feminista

Martxaren lehen pausoak

Aldarrikapenen motxila ondo beteta zuela abiatu zen lehen Martxa hura. Mundu osoko feministak ados dauden bi gai nagusi biltzen zituen: pobrezia eta indarkeria sexista. Baina ez ziren gai horiek soilik jorratu, tartean izan ziren, besteak beste, formazioa eta hezkuntza plan baten beharra, eta kontzientziazio feminista aktibatzeke nahia. Bestalde, helburu estrategikoagoa ere ezarri zen: mundu-sare feminista sortzea globalki eta lokalki eragingo zuena. Hasiera-hasieratik lortu zuen Emakumeen Mundu Martxak izugarritzko oihartzuna. 2000. urtean Quebec-etik eta Genevatik abiatu eta New Yorken amaitu zen. Urte hartan ez zituen Euskal Herriko lurra zeharkatu –aurten egingo duen gisara–, baina hemen ere izan zuen oihartzunik, ekainaren 17tik urriaren 7ra bitartean –Martxak irauten zuen tar-



TALLERES MITXELENA

S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

MARTXAK ZEHARKATUKO DITUEN HERRIALDEAK:

Kurdistan, Grezia, Balkanak, Italia, Suitza, Frantzia, Belgika, Alemania, Polonia, Hungaria, Austria, Katalunia, Euskal Herria, Galizia.

EUSKAL HERRIAN ZEHARKATUKO DITUEN HERRIAK:

Irailak 28

Tafalla, Gares, Iruñea.

Irailak 29

Sakana, Leitza, Baztan, Hazparne.

Irailak 30

Baiona, Hondarribia, Donostia.

Urriak 1

Errenteria, Zumaia, Hernani, Tolosa.

Urriak 2

Beasain, Bergara, Agurain, Gasteiz.

Urriak 3

Durango, Gernika, Igorre, Basauri.

Urriak 4

Portugalete, Getxo, Bilbo.

tea– hainbat ekintza antolatu ziren, hala nola antzerkiak, idazleen eguna eta baita manifestazio nazionala ere, Donostian.

Europako zenbait tokitatik martxak antolatu zituzten Bruselara, baita Euskal Herritik ere, Europako mobilizazioa babesteko. Lortutako eragina eta izandako oihartzuna ikusirik, bost urtean behin mundu-ekintza handia egitea erabaki zen.

Ehun herrialdek baino gehiagok hartzen dute parte Emakumeen Mundu Martxan eta horrelako mugimendua antolatzea ez da bate-erreza: “Konplexua eta zoragarria da aldi berean”, esan du Mrielek. “Martxa koordinazio nazionalen batura da; herri, eskualde, nazio eta nazioarte mailan antolatzen dena”, azaldu du Martinsek. Portugalen kasuan, koordinatzaile taldean lanean dihardutenak Martxan aritzeaz gain, beste hainbat elkartetan ere egiten dute lan; esaterako, arrazakeriaren eta etxegabetzeen aurkako mugimenduetan.

Euskal Herrian zer

Irailaren 28an Kataluniak lekukoa pasa eta Tafallan sartuko da karabana. Nafarroa, Ipar Euskal Herria, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia igarota bere bidea jarraituko du Galiziarantz. Bilbon izango da azken ekitaldia urriaren 4an.

Alta, karabanak zeharkatuko ez dituen eskualdeetan ere hainbat ekintza antolatuko dira ahalik eta eragin handiena lortzeko. Hori lortu nahi baitu Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak: emakume anitzez osatutako

Haziak ereiten

SINBOLISMO HANDIA DU Mundu Martxak; bizi eredu baten ispilu izan nahi du, jaitzen ari den aldaketa baten erreferente. Hori dela eta, munduan zehar landaketak egin dituzte martxari babes adierazteko: “Haziarena feminismoa landatzeko modu metaforikoa izan da. Herri eta hirietako espazio publikoetan zein pribatuetan landatu nahi ditugu haziak”, adierazi du Josebe Iturriozek. Bizitzaren jasangarritasuna eta lurraren eta gorputzaren arteko loturak irudikatu nahi dituzte, “pentsamendu indigenetan du oinarria; urteetan lurra bortxatua izan da emakumea bortxatua izan den era berean”, azaldu du. Argi du Joana Aurrekoetxeak: “Bideetan haziak ereinez mundu osoko aldarrikapen feministak noizbait loratuko diren itxaropenez jarraituko dugu aurrera bidean”.



EMAKUMEENMUNDUMARTXA.EUS

ELAko emakumeek landaketa sinbolikoa egin zuten Martxari atxikimendua adierazteko.

mugimendua. Hainbat esparrutan lan egiten duten emakumez osatu dute taldea: militantzia feminista, nekazaritza, sindikalgintza, hezkuntza, migrazioa, lesbianismoa, aniztasun funtzionala...

Ez da Mundu Martxa euskal lurretatik igarotzen den lehen aldia. Nazioarteko ekintzari babes emateko, Euskal Herrian helburu zehatza jarri zen abian, 2003an: Mundu Gutuna oinarri bezala hartuta, eztabaida irekia egin zuten, herriz herri, *Euskal Herriko Emakumeen Eskubide Gutuna* sortzeko. 2005ean arrakasta itzela izan zuen Martxak eta bost egunez autobus moreek hartu zituzten Euskal Herriko hainbat herri. 2010ean egin zen hurrengo Martxa, eta azken hau ez zen hain arrakastatsua izan: “Beharakadtxo bat izan zuen, baina gure helburua aurten Martxa berrindartzea da”, azaldu du Josebe Iturrioz Mundu Martxako kideak. ■